



BALDINTZA OROKORRAK



OINARRIZKO EHORZKETA
ASEGURUA

24 ORDU ZURE ZERBITZURA

Telefono bat markatze hutsarekin EXPERTIAko antolakuntza osoa martxan jarriko da zure gorabehera konpontzeko eta zure premiak estali eta gogobetetzeko.

Deitu eta behar duzun informazio guztia emango dizugu, eguneko 24 orduetan.

Baita webgunea erabiliz ere: expertiaseguros.com

LAGUNTZARAKO TELEFONO-ZERBITZUA:

900 264 524



HERIOTZA FUNTSEZKOA (040616 EREDUA)

baldintza orokorrak

Orria

aurkibidea

I. ATALA:	ARAU OROKORRAK	5
1. ARTIKULUA	ASEGURUAREN OBJEKTUA.....	7
2. ARTIKULUA	KONTRATUAREN OINARRIAK	7
3. ARTIKULUA	PERFEKZIOA ETA KONTRATUAREN ONDORIOAK	8
4. ARTIKULUA	KONTRATUAREN OINARRIAK	8
5. ARTIKULUA	KONTRATUAREN IRAUPENA.....	8
6. ARTIKULUA	ARRISKU-DEKLARAZIOA	9
7. ARTIKULUA	PRIMAREN ORDAINKETA	9
8. ARTIKULUA	ASEGURATUAREN OKERREKO ADINAREN KASUA	10
9. ARTIKULUA	EZBEHARRAK	11
10. ARTIKULUA	PRESKRIPZIOA	14
11. ARTIKULUA	ZERGAK.....	14
12. ARTIKULUA	ALDERDIEN ARTEKO GATAZKAK KONPONTZEA	14
13. ARTIKULUA	KOMUNIKAZIOAK	14
14. ARTIKULUA	DATU PERTSONALAK BABESTEKO KLAUSULA (15/1999 LEGE ORGANIKOA)	15
15. ARTIKULUA	BEZEROAREN BABES ETA ERREKLAMAZIOKO ESKAERAK	16
II. ATALA:	ASEGURUAREN	17
16. ARTIKULUA	HERIOTZEN ZERBITZUA.....	18
17. ARTIKULUA	LEKUALDATZE OSOA.....	20
18. ARTIKULUA	EGUNEROKO BIZITZARAKO LAGUNTZA HERIOTZAGATIK	22
19. ARTIKULUA	LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA HERIOTZAGATIK.....	26
20. ARTIKULUA	ZERBITZU JURIDIKOEN KUDEAKETA HERIOTZAGATIK.....	27

I. ATALA

ARAU OROKORRAK

ATARIKO ARTIKULUA

Aseguru-kontratu hau Espainiako legeriaren arabera araututa dago eta, bereziki, Aseguru Kontratuen urriaren 8ko 50/1980 Legeak (Urte bereko urriaren 17ko Estatuko Aldizkari Ofiziala), Aseguru eta berraseguru etheen antolamendu, gainbegiratze eta kaudimenaren uztailaren 14ko 20/2015 Legeak eta horien garapeneko erregelamenduan eta horiekin bat datozen gainerako legeetan xedatutakoaren arabera, horiek betez hemen xedatuta ez dagoen guztian, eta kontratu honetako baldintza orokorretan eta partikularretan xedatutakoaren arabera.

Espainiako aseguru-jardueraren kontrola Espainiako Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren mendeko Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari dagokio. Gauzatutako aseguru-kontratuen oreka babestuko du eta bere aurrean egiten diren erreklamazioak ebatziko ditu.

Baldintza orokor hauek baldintza partikularrekin batera eta aseguruaren hartzaileak sinatuta badaude soilik izango dira baliagarriak.

DEFINIZIO OROKORRAK

Kontratu honetan, honela ulertuko dira kontzeptu hauek:

ASEGURATZAILEA: Expertia, Seguros de Decesos, S.A, calle Arminza, 2, 28023 de Madrid helbidea duen erakundea, Espainiako Estatukoa, prima bat kobratuta eta estalduraren xede den gertakaria gertatzen denean, hitzartutako muga barruan, aseguratuari eragindako kaltea ordaintzera edo adostutako prestazioa betetzera behartuta dagoena.

ASEGURU HARTZAILEA: Aseguratzailarekin batera honako kontratu hau sinatzen duen pertsona fisiko edo juridikoa da, eta berari dagozkio kontratutik ondorioztatzen diren betebeharrak, euren izaeragatik Aseguratuak bete behar dituenak izan ezik.

ASEGURATUA: aseguruan sartzen den interesaren titularra den pertsona fisikoa eta, hartzaileak huts eginez gero, kontratutik sortutako betebeharrak bere gain hartzen dituena.

ONURADUNA: kontratatutako kalte-ordaina edo prestazioa jasotzeko eskubidea duen pertsona fisiko edo juridikoa.

POLIZA: Aseguru-kontratuaren Baldintza arautzaileak jasotzen dituen dokumentua. Polizaren osagarriak dira: baldintza orokorrak, arriskua identifikatzen duten baldintza partikularrak eta poliza bera osatu eta aldatzeko jaulkitzen diren gehigarri edo eranskinak.

PRIMA: aseguruaren prezioa da. Ordainagiriak, gainera, legez aplikatu beharreko errekarquak eta zergak jasoko ditu.

ZENBATEKO ASEGURATUA: polizan adierazitako zenbatekoa, kapital aseguruaren, kalte-ordainaren edo, kasuaren arabera, aseguratzaileak ezbehar bakoitzean ordaindu beharreko zerbitzuaren balioa irudikatzen du.

EZBEHARRA: aseguruari ondorio kaltegarriak edo polizak estalitako bermeak aplikatuz laguntza emateko premia sortzen dion bat-bateko eta ustekabeko gertaera.

EGUNAK: egun naturalak.

HILETA-ZERBITZUA: hildako aseguratua lurperatzeko edo errausteko behar diren elementu eta zerbitzuen multzoa.

1. artikulua

Aseguruaren objektua

Aseguru honen bidez honako berme hauek estaltzen dira, baldin eta polizako baldintza partikularretan hala adierazten bada:

- HERIOTZEN ZERBITZUA
- LEKUALDATZE OSOA
- EGUNEROKO BIZITZARAKO LAGUNTZA HERIOTZAGATIK
- LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA HERIOTZAGATIK
- ZERBITZU JURIDIKOEN KUDEAKETA HERIOTZAGATIK

Goian aipatutako berme bakoitzaren edukia eta ezaugarriak aurrerago azalduko dira.

2. artikulua

Kontratuaren oinarriak

Aseguratzaileak egindako galdetegiaren arabera aseguru-hartzaileak eta, bere kasuan, aseguruak, egindako adierazpenek eta poliza honek aseguruaren oinarria den multzo unitario bat osatzen dute, itundutako muggen barruan bertan zehaztutako arriskuak soilik barne hartzen dituena. Polizaren edukia aseguru-proposamenaren edo hitzartutako klausulen desberdina baldin bada, aseguruaren hartzaileak erreklamazioa egin ahal izango dio aseguratzaileari, poliza entregatzen den unetik hilabeteko epean, dagoen desadostasuna konpon dezan. Epe hori amaitu eta erreklamaziorik egin ez bada, polizan ezarritakoari jarraituko zaio.

Artikulu honetan zehaztutakoak aseguratzaileak arriskua onartzea, kontratuaren ondorioz dituen betebeharrak onartzea eta prima finkatzea eragiten du.

3. artikulua

Perfekzioa eta kontratuaren ondorioak

Kontratua alderdi kontratugileek polizaren harpidetzaren bidez adierazitako baimenarekin burutzen da.

Polizaren bermeak baldintza partikularretan efektu-data gisa adierazitako egunetik hogeita lau ordu igarotakoan sartuko dira indarrean, baldin eta kontratua perfektionatu bada eta lehen prima ordaindu bada.

Aipatutako betekizunetan atzerapena izaten bada, aseguratzailearen betebeharrak betekizuna gauzatzen denetik hogeita lau ordura hasiko dira.

4. artikulua

Kontratua deuseztatzea

Kontratua deuseza izango da amaitzeko garaian arriskurik ez baldin badago edo ezbeharrak gertatuta baldin badago.

5. artikulua

Kontratuaren iraupena

Baldintza orokor hauetako 16. artikuluan araututako heriotza-zerbitzurako xedatutakoa alde batera utzita, kontratuaren bermeak baldintza partikularretan muga-egun gisa adierazitako egunetik hogeita lau ordu igarotakoan amaituko dira.

Baldintza orokor hauetan adierazitako aldian 16. artikuluan araututako heriotza-zerbitzurako xedatutakoa alde batera utzita, poliza hau urtebeterako luzatu dela ulertuko da aldi bakoitza amaitzen denean, baldintza orokor hauetan jasotako mugen barruan.

Dena den, edozein alderdi kontratatzailek besteari jakinaraz diezaioke aseguru indarrean ez edukitzeko nahia, jakinarazpen idatzi bat bidaliz hasita dagoen aseguru-aldia amaitu baino gutxienez hilabete lehenago hartzailea denean, eta bi hilabete lehenago aseguratzailea denean.

Aseguru-hartzaileak soilik izango du eskumen hori baldintza orokor hauetako 16. artikuluan araututako heriotzen zerbitzuari dagokionez. Horregatik, aseguratzailea behartuta dago

heriotzen zerbitzua luzatzera, isilbidez, baldin eta ez bada 7. artikulua aipaturiko prima ez ordaintzeko kasuren batean erortzen. Primaren ordainketa.

6. artikulua

Arriskuaren deklarazioa

Aseguru-hartzaileak betebeharra du, kontratua bukatu aurretik, aseguratzaileari, honek aurkezten dion galde-sortaren arabera, arriskuaren balorazioan eragina izan dezaketen eta berak ezagutzen dituen zirkunstantzia guztiak aitortzeko. Betebehar horretatik libre geldituko da, aseguratzaileak galde-sortarik ematen ez badio, edo, galde-sorta emanda ere, arriskuaren balorazioan eragina izan dezaketen eta galde-sortan sartzen ez diren zirkunstantziak baldin badira.

Aseguratzaileak kontratua hutsaldu ahal izango du, aseguru-hartzaileari zuzendutako deklarazio bat eginez hilabeteko epean, aseguru-hartzaileak informazioa isildu edo oker eman duela jakiten denetik kontatzen hasita. Aseguratzailearentzat izango dira, bere aldetik dolo edo erru larririk ez bada behintzat, deklarazioa egiten den unean hasita dagoen aldiari dagozkion primak.

Aseguratzaileak aurreko paragrafoan adierazitako deklarazioa egin aurretik gertatuz gero ezbeharra, prestazioa adostutako primaren eta arriskuaren benetako garrantzia jakin izan balitz aplikatuko zatekeenaren arteko aldearen proportzioan murriztuko da. Aseguru-hartzailearen aldetik dolo edo erru larririk izan bada, aseguratzailea libre geratuko da zerbitzua ematetik.

7. artikulua

Primaren ordainketa

Primaren zenbatekoa urtero kalkulatu eta eguneratzen da aseguratzaileak jasandako arriskua definitzen duten faktoreen arabera. Alderdiek adostuta, urteko primaren ordainketa sei hileko, hiru hileko edo hileko aldietan zatitu daiteke. Horrek finantza- errekaragua aplikatzea ekar dezake.

Aseguru-hartzailea behartuta dago lehenengo prima edo prima bakarra kontratua perfektionatzen den unean ordaintzera.

Prima-ordainagiriak dagozkien muga-egunetan ordaindu behar dira, aurretik eta zenbateko osoa.

Baldintza partikularretan ez bada prima ordaintzeko lekurik zehazten, ordainketa aseguru-hartzailearen bizilekuan egingo dela ulertuko da.

Aseguru-hartzailearen erruz lehenengo prima ordaindu ez bada edo haren muga- eguna iristean prima bakarra ordaindu ez bada, aseguratzaileak eskubidea du kontratua desegiteko edo polizan oinarrituz zor den primaren ordainketa betearazpen-bidetik galdatzeko. Edozein kasutan, baldintza partikularrean kontrakoa hitzartu ezean, ezbeharrak gertatu baino lehen prima ordaintzen ez bada aseguratzailea bere betebeharretik libre geratuko da.

Ondorengo primetako baten bat ordaindu gabe geratzen bada, aseguratzailearen estaldura etenda geratuko da, muga-egunetik hilabete pasatu ondoren.

Aseguratzaileak ez badu ordainketa erreklamatzeko prima mugaeguneratu ondorengo sei hilabeteetan, kontratua iraungitzat emango da. Nolanahi ere, kontratua etenda dagoenean, aseguratzaileak indarrean dagoen aldiko prima ordaintzea soilik eska dezake.

Kontratua ez bada suntsitu edo iraungi aurreko paragrafoetan xedatutakoaren arabera, estaldura berriz ere indarrean sartuko da aseguruaren hartzaileak prima ordaintzen duen egunetik hogeita lau ordura.

Aseguru-hartzaileak aseguratzailearen agente eskusibo bati egindako prima-ordainketak zuzenean aseguratzaileari egindako ordainketaren balio bera izango du.

Primaren ordainketa aseguru-hartzailea titular duen bankuko kontu batean helbideratu ahal izango da Ordainketa Zerbitzuei buruzko azaroaren 13ko 16/2009 Legean, ordainketa-zerbitzuei aplikatzeko informazio-baldintza eta -eskakizunen gardentasunari buruzko ekainaren 14ko EHA/1608/2010 aginduan eta horiekin bat datozen gainerako arauetan xedatutako eskakizunen arabera, batez ere SEPA agindua edo SEPA zordunketa zuzena helbideratzeko agindua behar bezala beteta eta sinatuta aseguratzaileari emateari dagokionez.

Prima ordaindu dela ulertuko da hartzailearen ordainketa-zerbitzuen hornitzaileak horren bankuko kontuan zordunketa egiten duenean, SEPA araudiaren arabera gero prima-ordainagiria itzuliko balitz prima ordaindu gabekotzat jotzearen kalterik gabe. Kasu horretan, aseguratzaileak ordainagiria aseguratzailearen egoitzan duela jakinaraziko dio aseguru-hartzaileari, eta hark prima-ordainagiria egoitza horretan ordaindu beharko du.

8. artikulua

Aseguratuaren Okerreko Adinaren Kasua

Aseguratuaren jaiotza-data gaizki adierazita egonez gero, aseguratuaren benetako adinak kontratua indarrean sartzen den unean kontratuak xedatutako onespren-mugak gainditzen baditu soilik aurkaratu ahal izango du kontratua.

Beste kasu batean, jaiotza-data gaizki adieraztearen ondorioz ordaindutako prima ordaintzea zegokiona baino txikiagoa bada, aseguratzailearen zerbitzua jasotako primaren proportzioan murriztuko da. Baina ordaindutako prima ordaindu behar zena baino handiagoa bada, aseguratzailea behartuta dago jasotako primen soberakoa interesik gabe itzultzera.

9. artikulua

Ezbeharrak

9.1.EZBEHARRA AITORTZEA ETA IZAPIDETZEA

Aseguratuaren heriotza-ezbarra

Heriotza-zerbitzua emateko, bermatutako zerbitzua eman ahal izateko, aseguratuaren heriotza berehala jakinarazi behar da. Horretarako, aseguratzailearekin harremanetan jarri behar da eta aseguratzailea prest egongo da - eguneko 24 orduetan -, honako zenbaki hauetan:

- lurralde nazionaletik deituta: 900 264 524
- atzerritik: +34 915 160 518

Atzerritik egindako deiak hartzaileak ordaintzeko sistemaren bidez egingo dira, aseguratzailearen kontura.

Aseguratzaileari agiri hauek eman behar zaizkio:

- Aseguratuaren NAN
- Heriotzaren Mediku Ziurtagiri Ofiziala beteta

Hildako aseguratuaren kausadunek beren kontura egiten badute zerbitzua, zerbitzuaren egiaztagiria, heriotzaren hitzez hitzeko ziurtagiria eta legezko jaraunsle-izaera eta zerga-betebeharrak bete izana adierazten duen dokumentazio aurkeztu ondoren, polizan ageri den kontratatutako zerbitzuaren balioa ordainduko zaie.

Gainerako bermeak

Aseguratzailearekin telefono hauen bidez jarri behar da harremanetan:

- lurralde nazionaletik deituta: 900 264 524
- atzerritik: +34 915 160 518

Edozein kasutan, gehienez ere zazpi eguneko epean komunikatu behar diote aseguratzaileari ezbeharrak gertatu dela, beraiek jakin dutenetik kontatzen hasita. Betebehar hori betetzen ez bada, ezbeharraren berri ez ematearen ondoriozko kalte-galerak erreklamatu ahal izango ditu aseguratzaileak, aseguratzaileak ezbeharraren berri beste bide batetik izan duela frogatzen ez bada behintzat. Gainera, ezbeharraren gorabeherei eta ondorioei buruzko informazio guztia eman beharko zaio aseguratzaileari. Betekizun hori urratzen bada, kalte-ordainerako eskubidea dolo edo erru larria egon bada soilik galduko da.

Aseguratzaileak eskubidea du ezbeharrak balioesteko beharrezkoa iruditzen zaion dokumentazio gehigarria eskatzeko.

Behar den kasuetan, agiriak behar bezala legeztatuta aurkeztu behar dira.

9.2.KALTE-ORDAINA ORDAINTZEA

Aseguratzailea behartuta egongo da prestazioa ematera ezbeharrak gertatu dela ziurtatzeko egin beharreko ikerketak eta peritazioak amaitzean, baldin eta ezbeharrak aseguruak fede txarrez eragin ez badu.

Heriotzen Zerbitzua izeneko 16. artikuluan xedatutakoaren arabera, aseguratzaileak aseguratutako zenbateko osoa edo zati bat ordaindu beharko balu, ezbehar-deklarazioa jasotzen denetik berrogei egun bete baino lehen, zor dezakeenaren gutxieneko zenbatekoa ordaindu beharko du, berak ezagutzen dituen zirkunstantzien arabera.

9.3.ASEGURATZAILEAREN BERANDUTZA

Aseguratzailea berandutzan erortzen bada prestazioa emateko garaian, aseguruarentzat onuragarrien diren kontratu-klausulak baliozkotzat joko diren arren, ondoko arauen arabera emango da kalte eta galeren ordaina:

1. Oro har, aseguratzaileak aseguru-hartzailearekiko edo aseguruarekiko duen berandutzari eragingo dio.
2. Kalte-ordaina ordaintzeko garaian izandako berandutzari aplikatu ahal izango zaio, baita aseguratzaileak zor izan dezakeen gutxieneko zenbatekoa ordaintzeko garaian izandako berandutzari ere.
3. Aseguratzailea berandutzan erori dela ulertuko da, ezbeharrak gertatu eta hiru hilabetera prestazioa eman ez badu, edo ezbeharraren deklarazioa jaso zenetik berrogei eguneko epean zor lezakeenaren gutxieneko zenbatekoa ordaindu ez badu.
4. Berandutzaren kalte-ordaina berandutza-interesa izango da eta ofizios ezarriko du organo judizialak. Interes hori kalkulatzeko, urteko interesa izango da legezko interesa (interesa sortzen denean indarrean dagoena), ehuneko berrogeitahamarrean gehitua; interesa eguneko egun sortzen dela ulertuko da, erreklamazio judizialen

beharrik gabe. Hala ere, ezbeharra gertatu denetik bi urte igaro ondoren, urteko interesa ezingo da % 20koa baino txikiagoa izan.

5. Zor den kalte-ordaina izango da kalkuluaren hasierako oinarria, edo Aseguratzailerak zor lezakeenaren gutxieneko zenbatekoa bestela.
6. Interes horiek kontatzen hasteko hasiera-muga ezbeharren data izango da.
7. Hala ere, aseguruaren hartzaileak, aseguratuak edo onuradunak ez badute ezbeharren berri emateko betebeharra bete polizan ezarritako epean edo, subsidiarioki, hura ezagutu eta zazpi eguneko epean, ezbeharren berri eman den eguna izango da kontatzen hasteko hasiera-muga.
8. Kaltetutako hirugarrenari edo bere jaraunslerei dagokienez, zenbaki honetako lehen paragrafoan xedatutakoa ez da beteko aseguratzailerak frogatzen badu ez zuela ezbeharren berri izan kaltetuak edo bere jaraunslerek erreklamazioa edo zuzeneko akzioa aurkeztu arte, eta, kasu horretan, erreklamazioa edo zuzeneko akzioa aurkezten den data izango da hasiera-muga.
9. Interesak kontatzeko amaiera-muga izango da, aseguratzailerak zor lezakeenaren gutxieneko zenbatekoa ordaindu gabeko kasuetan, aurreko zenbakiaren arabera kalte-ordainaren zenbateko osoarengatik interesak sortzen hasten den eguna, salbu aseguratzailerak gutxieneko zenbateko hori lehenago ordaintzen badu, kasu horretan ordainketa horren eguna izango baita muga-eguna. Gainerako kasuetan, berandutza-interesak ordaintzeko aseguratzailerak duen betebeharraren amaiera-data izango da, aseguratuari, onuradunari edo kaltedunari ordainketaren bidez kalte-ordaina ematen dion eguna.
10. Aseguratzaileraren berandutzagatik ez da kalte-ordainik eman behar, kalte-ordaina edo gutxieneko zenbatekoa ez ordaintzeko arrazoi justifikatu bat edo aseguratzailerari egotzi ezin zaiona egon bada.
11. seguruaren Kontentsazio Partzuergoak kalte-ordaina ordaindu behar badu berme-funts gisa, berandutzan erori dela ulertuko da kalte-ordaina ordaintzea erreklamatu zaionetik hiru hilabete pasatu badira eta ordainketa ez badu egin dagokion arautegiaren arabera, baina berandutzagatik kalte-ordaina emateko betebeharra ez zaio aplikatuko gutxieneko zenbatekoa ez ordaintzeagatik. Gainerakoan, Partzuergoak berme-funts gisa parte hartzen duenean, eta, salbuespenik gabe, Partzuergoak zuzeneko aseguratzailerak gisa egiten duenean kontratua, erabat aplikagarri izango zaio artikulu hau.
12. Aseguratzaileraren berandutzako kalte-ordaina erabakitzean ez da aplikatuko Kode Zibileko 1.108. artikuluan xedatutakoa, ez eta Prozedura Zibilaren Legeko 921. artikuluan laugarren paragrafoan ezarritakoa ere, azken agindu horretan epaiaren errebokatze erabateko edo partzialari buruz dauden aurreikuspenak izan ezik.

10. artikulua

Preskripzioa

Kontratutik eratorritako akzioen preskripzioa bost urte igarotakoan gertatuko da pertsonen arriskuei dagokienez.

11. artikulua

Zergak

Hartzailearen, aseguruaren edo onuradunaren kontura izango dira legez jasanaraz dezaketen zerga, tasa, ariel eta errekarju guztiak.

12. artikulua

Alderdien arteko gatazkak konpontzea

12.1. ARBITRAJEA

Bi alderdiak ados ez badaude, euren desadostasunak arbitroen erabakipean utz ditzakete legeria zibilarekin bat etorritz.

12.2. JURISDIKZIO-ESKUMENA

Aseguratuak Espainian duen helbideari dagokiona izango da aseguru-kontratutik eratorritako akzioez arduratzeko eskumena izango duen epailea, eta kontrako edozein itun baliorik gabea izango da.

13. artikulua

Jakinarazpenak

Alderdien arteko jakinarazpenak idatziz edo zalantzarik eragiten ez duen beste bide batez egingo dira.

Aseguru-artekari batek aseguruaren hartzailearen izenean aseguratzailari egiten dizkion jakinarazpenak, aseguruaren hartzaileak egindakoen ondorio berberak izango ditu, berariaz aurkakoa adierazten duenean izan ezik.

Nolanahi ere, aseguru-hartzailearen berariazko baimena beharko da kontratu berri bat sinatzeko edo indarrean dagoen aseguru-kontratua desegin edo aldatzeko.

Kontratuan bitarteko lanak egiten dituen edo egin dituen aseguru-agenteari aseguru-hartzaileak egindako jakinarazpenek aseguratzailerari zuzenean egindakoen eragin berbera izango dute.

14. artikulua

Pribatutasun-politika

14.1. DATU PERTSONALEN TRATAMENDUAREN ARDURADUNA

Datu pertsonalak babesteari buruzko araudi aplikagarriak xedatutakoaren arabera, jakinarazten dizugu ematen dizkiguzun datu pertsonalak EXPERTIA SEGUROS DE DECESOS SAK tratatuko dituela.

Aseguru-kontratua formalizatzeko eta, dagokionean, kontratu-harremana bideratzeko behar diren datu pertsonalak besterik ez dira eskatuko.

Datu pertsonalen babesa bermatzeko xedez, datuak babesteko ordezkari bat izendatu du Entitateak. Berarekin harremanetan jartzeko, honako helbide honetara idatz dezakezu: dpd@grupopreventiva.com.

14.2. TRATATZEN DIREN DATU PERTSONALEN TIPOLOGIA ETA JATORRIA

Interesdunak Entitatearekin duen harremanaren arabera (aseguru-poliza bat eskatu, formalizatu edo burutzeko), honako datu-mota hauek tratatuko ditugu:

- Identifikazio-datuak eta harremanetarakoak, hala nola izen-abizenak, IFZ, helbidea, telefonoa, posta-helbidea, helbide elektronikoa eta abar.
- Datu pertsonalak, esaterako egoera zibila, sexua, jaioteguna, adina, nazionalitatea, lanbidea eta abar.
- Kontratu- eta merkataritza-harremanari dagozkion datuak.
- Bereziki babestutako datuak, adibidez osasunari buruzkoak, arriskuak baloratu eta aukeratzeko eta ezbeharrak kudeatzeko beharrezkoak direnean bakarrik.
- Hirugarrenen datuak, betiere hirugarren horiek aseguratuak, onuradunak edo hirugarren kaltetuak direnean, poliza-hartzaileak edo titularrek berek emanda.

14.3. DATU PERTSONALEN TRATAMENDUAREN HELBURUA

Datu pertsonalen tratamenduak honako helburu hauek izan ditzake:

1. Arriskuak baloratu, aukeratu eta tarifikatzen kontratu aurreko neurriak hartzea, eta aseguru-kontratua bera formalizatzea. Kontratu-harremanaren ondoriozko gestioak egitea, administratiboak, fiskalak edo bestelakoak, hala nola poliza aldatzea, estaldura zabaltzea edo banku-informazioa ematea.
2. Ezbeharren tramitazioa dela eta, aseguru-polizaren ondoriozko betebeharrak betetzea, bai aseguru-entitatearen bidez, bai aseguratuentzako zerbitzu-emaileen edo hirugarren parte-hartzaileen bidez.
3. Informazioa trukitzea aseguru-bitartekari, agente, artekari edo, dagokionean, bestelako eragileekin, esaterako aseguru-entitateekin, aseguruak banatzeko xedez.
4. Berraseguruko eragiketak, koasegurukoak edo zorroa administratu edo lagatzekoak egitea beste aseguru- edo berraseguru-entitate batzuekin.
5. Aseguru-hartzaile, aseguratu, onuradun, hirugarren kaltetu eta eskubidedunek aurkeztutako kekek eta erreklamazioak jasotzea eta kudeatzea.
6. Entitatearen aseguru-produktuen inguruko ekintza komertzialak egitea, edozein bitarteko erabiliz (ohiko posta, posta elektronikoa, SMS edo telefonoa), datuen titularrarentzat interesgarria izan litekeelakoan.
7. Emandako zerbitzuen kalitateari buruzko inkestak egitea, eta Entitatearen produktuei buruzko merkatu-azterketak eta -ikerketak gauzatzea.
8. Bezeroaren eta Entitatearen arteko telefono bidezko elkarriketak grabatzea, kalitate-kontrolari lotutako xedeetarako edo, desadostasunik izanez gero, Entitatearen interesak defendatzeko.
9. Aseguru-kontratuari lotutako iruzurrezko jardueraren bat lekarkeen jokabideren bat saihestea edo aurkitzea, eta erakunde edo agintari eskudunei horren berri ematea.
10. Preventiva Taldeko entitateen artean —PREVENTIVA COMPAÑÍA DE SEGUROS Y REASEGUROS SAREN eta AVANTIA SERVICIOS DE GESTIÓN SLEN artean— informazioa trukitzea, gainbegiratze-betebeharrak eta kaudimenari lotutakoak betetzeko eta baliabideak zentralizatzeko.
11. Aseguru-entitateen arteko fitxategi komunak egitea, ezbeharrak likidatzeko, lankidetzat estatistiko aktuarialaren bidez arriskuak tarifikatu eta aukeratzeko eta aseguru-teknikei nahiz iruzurraren aurkako borrokari buruzko ikerketak egiteko.
12. Bezeroen profila helburu komertzialekin egitea, entitateak eskainitako aseguru-produktuak diseinatu eta merkaturatzeko.

14.4. DATUEN TRATAMENDUAREN LEGITIMAZIOA

Datuen tratamenduaren lege-oinarriek zerikusia dute aseguru-kontratua harpidetu eta burutzearekin, lege-betebeharrak betetzearekin, interes legitimoarekin edo interesdunaren baimenarekin, jarraian zehazten den bezala:

1. Honako hauek dira aseguru-kontratua formalizatu, garatu eta burutzeko behar diren datuen tratamenduaren lege-oinarriak: urriaren 8ko 50/1980 Legea, Aseguru Kontratuei buruzkoa (aurrerantzean LCS); uztailaren 14ko 20/2015 Legea, aseguru- eta berraseguru-entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenarena (aurrerantzean, LOSSEAR); azaroaren 20ko 1060/2015 Errege Dekretua, aseguru- eta berraseguru-entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenarena (aurrerantzean, ROSSEAR).
2. Polizak eragindako betebeharrak betetzeko lege-oinarriak, zerbitzuak ematearen ondoretarako, LOSSEARen 99.1. artikulua eta LCSren 1., 18. eta 38. artikulua dira.
3. Aseguru-bitartekariekin eta beste aseguru-entitate batzuekin informazioa trukatzek, banaketa helburu dela, lege-oinarri hau du: uztailaren 17ko 26/2006 Legea, aseguru eta berraseguru pribatuen bitartekaritzarena.
4. Berraseguru-eragiketarako tratamenduak lege-oinarri hauek ditu: Entitateak oreka tekniko-finantzarioari eusteko interes legitimoa eta LOSSEARen 99.4 artikulua. Beste erakunde batzuekin zorroa administratu edo lagatzeko egindako eragiketen lege-oinarriak, berriz, Entitatearen interes legitimoa eta LOSSEARen zein ROSSEARen lege-xedapenak dira.
5. Kexa eta erreklamazioei arreta emateak datuen tratamendua legitimatzen du, martxoaren 11ko ECO/734/2004 Aginduak, finantza-erakundeetako bezeroen arretako sail eta zerbitzuenak, xedatutakoaren arabera.
6. Marketina, publizitatea eta bestelako eragiketa komertzialak egiteko beharrezko datuen tratamenduak legezko babes hauek ditu: batetik, Entitatearen interes legitimoa, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko EB 2016/679 Erregelamenduen) 47. kontuan hartuzkoaren arabera; bestetik, interesdunak hasieran emandako baimena (baimen hori edonoz kendu ahal badu ere, kendu aurretik emandako baimenean oinarritutako tratamendua legitimoa da).
7. Kalitate-inkestak eta merkatu-ikerketak egitea ere legez babestuta dago, Entitateak emandako zerbitzuen kalitatea eta bezeroei eskainitako produktuen egokitasuna ezagutzeko interes legitimoaren bidez.
8. Telefono bidezko elkarrizketen grabazioak ere Entitatearen interes legitimoa du lege-oinarri, hain zuzen kalitate-kontrolari lotutako xedeetarako eta judiziozko zein judizioz kanpoko erreklamazio baten aurrean bere interesak defendatzeko interes legitimoa.
9. Iruzurrari aurrea hartzeko tratamenduaren legezko babesa interes publikoa da, eta, gainera, LOSSEARen 99.7 eta 100. artikulua.
10. Preventiva Taldeko entitateen arteko informazioa trukatzek lege-oinarri hauek ditu: LOSSEARen 99.3 artikulua eta Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren 48. kontuan hartuzkoa.
11. Aseguru-entitateen arteko fitxategi komunak egiteak (ezbeharrak likidatzeko, lankidetzatza estatistiko aktuarialaren bidez arriskuak tarifikatu eta aukeratzeko eta aseguru-teknikari nahiz iruzurraren aurkako borrokari buruzko ikerketak gauzatzeko helburuz) Entitatearen interes legitimoa du lege-oinarri, hain zuzen ere LOSSEARen 99.7. artikulua, eta ezinbestekoa da haien jarduera betetzeko.
12. Azkenik, profilak egiteak eta datu horiek aseguru-produktuak diseinatzeko eta merkaturatzeko erabiltzeko ere Entitatearen interes legitimoa dute babes, baita irailaren 21eko 2017/2358 Erregelamendua ere, aseguru-enpresei eta aseguru-banatazaileei aplikagarri zaizkien produktuen gobernantzaarena.

14.5. DATU PERTSONALEN HARTZAILEAK:

Interesdunak emandako datu pertsonalak honako pertsona fisiko edo juridiko hauei jakinarazi ahal izango zaizkie:

- Preventia Taldeko entitateei, betiere barne-administrazioarako edo baliabideak zentralizatzeko erabiltzen badituzte, gainbegiratze- edo kaudimen-helburuak izanik.
- Aseguru-bitartekariei, kontratu-dokumentazioa formalizatzeko eta aseguratuekin bitartekaritza-zerbitzuari eusteko helburuz.
- Tratamenduaren arduradunei, kontratatutako aseguru-polizaren ondoriozko zerbitzu profesionalak emateko helburuz. Adibidez, honako hauei: perituei, konpontzaileei, laguntza-enpresa edo -profesionalei, abokatuei eta kanpoko prokuradoreei.
- Beste aseguru- edo berraseguru-entitate batzuei, aseguruak, berraseguruak edo koaseguruak banatzeko helburuz.
- Ondare- eta kreditu-kaudimenari buruzko informazio-zerbitzuak emateko fitxategien titularrak diren entitateei, kontsultak egiteko edo polizaren hartzaileak kontratu-betebeharrak hausten dituen kasuetarako.
- Erakunde publikoei, legezko betebeharrak betetzeko eta guztiz nahitaezkoa denean.
- Agintari eskudunei, epaileei eta auzitegiei, aldez aurretik errekerimendua egiten badute ikerketa baten barruan.

Emandako daturik ez zaie jakinaraziko bestelako hirugarrenei, eta ez da nazioarteko datu-transferentziarik egingo, titularrak berariazko baimenik ematen ez badu.

14.6. DATU PERTSONALAK GORDETZEKO EPEA

Entitateak zure datu pertsonalak gordeko ditu tratamendua legitimatzen duen aseguru-kontratuak irauten duen bitartean, salbu eta titularrak tratamendu jakin bati uko egiten badio, tratamendua mugatzen badu edo baimena kentzen badu. Aseguru-kontratua bukatu ondoren, entitateak blokeatu egingo ditu datuak, eta agintari eskudunen, epaile eta auzitegien edo herri-administrazioaren errekerimenduaren bidez bakarrik eskuratu ahal izango dira, aplikagarri diren legezko preskripzio-epearen barruan.

14.7. INTERESDUNEN ESKUBIDEAK

Interesdunek eskubidea dute Entitatea beraien datu pertsonalak tratatzen ari den jakiteko. Era berean, honako eskubide hauek erabil ditzakete:

- Datu pertsonalak eskuratzekoa eta zuzentzekoa.
- Datu pertsonalak ezabatzekoa.
- Datu pertsonalen tratamendua mugatzekoa edo horri uko egitekoa.
- Datu pertsonalak eramatekoa, teknikoki posible bada.

Aipatutako eskubideak erabiltzeko, jakinarazpen bat bidali behar diote interesdunek Entitateko datuak babesteko ordezkariari, bai posta elektronikoko bidez dpd@grupopreventiva.com helbidera, bai ohiko posta bidez helbide honetara: DPD EXPERTIA SEGUROS, calle Arminza, 2, 28023, Madrid.

Interesdunak dagozkion eskubideak erabiltzeko modurik ez badu, erreklamazioa aurkez dezake Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren aurrean.

15. artikulua

Bezeroaren babes eta erreklamazioko eskaerak

Finantza-erakundeetako bezeroaren arretarako sailak eta zerbitzuak arautzen dituen martxoaren 11ko ECO/734/2004 Aginduan xedatutakoaren arabera, EXPERTIA, Seguros de Decesos, S.A.k, PREVENTIVA Taldeko erakunde gisa, Bezeroaren Arretarako Zerbitzua eta Bezeroaren Defendatzailea ditu bezeroek aurkeztu eta beren interesekin eta legez aitortutako eskubideekin zerikusia duten kexa eta erreklamazioez arduratzeko eta horiek ebazteko.

Horien hartzaileek, aseguratuek, onuradunek, hirugarren kaltetuek eta eskubidedunek bi instantzietako baten eraginpean jar ditzakete beren kexa eta erreklamazioak hauetako batera bidalitako idatziaren bidez:

- EXPERTIA, Seguros de Decesos, S.A. erakundearen Servicio de Atención al Cliente, Calle Arminza 2, Urb. La Florida, 28023 Madrid helbidera, edo helbide elektronikoa honetara: reclamaciones@expertiaseguros.com
- Bezeroaren Defendatzailea: D.A. DEFENSOR CONVENIO PROFESIONAL, S.L., Calle Velázquez, 80, 1º D, 28001 de Madrid, Faxa: 91 308 49 91, Tel.: 91 310 40 43 edo posta elektronikoa bidez: reclamaciones@da-defensor.org

Bezeroek jarritako kexak eta erreklamazioak bi hilabeteko epean erantzun eta ebatziko dira, Bezeroaren Arretarako Zerbitzuan edo Bezeroaren Defendatzailearen aurrean aurkezten direnetik zenbatzen hasita.

Hartutako erabakiaren emaitzarekin ados ez badago, edo bi hilabeteko epea erantzunik jaso gabe igaro bada, erreklamazioak kexa edo erreklamazioa aurkeztu ahal izango du Aseguratuaren Defentsarako eta Pentsio Planen Partaideentzako Defentsarako Ordezkariaren aurrean, Paseo de la Castellana 44, 28046 Madrid helbidera idazkia bidaliz.

Lehen aipatutako erreklamazio-bideez gain, gatazkak auzibidean planteatu ahal izango dira, epaile eta auzitegi eskudunen aurrean.

Kexak eta erreklamazioak izapidetzeko, barne-funtzionamendua arautzen duen, Bezeroaren Defendatsarako Araudia bezeroen eskura dago Expertia Seguros enpresaren web-orrian <http://www.expertiaseguros.com> -en eta PREVENTIVA taldeko erakundeen bulegoetan.

II. ATALA

ASEGURUAREN BERMEAK

16. artikulua

Heriotzen Zerbitzua

16.1. BERMEAREN OBJEKTUA

Aseguratuak behartuta dago polizan hitzartutako hileta-zerbitzuak ematera aseguratuak hiltzen den kasuan, poliza hau osatzen duten baldintza orokor eta partikularren arabera. Zenbateko aseguratuak aseguratuak emandako zerbitzuaren kostuarekiko duen soberakina hartzaileari dagokio edo, bestela, horren jaraunseei.

Aseguruan jasota egongo da hileta-zerbitzu berezi bat, polizan aseguratuakoen seme-alaben heriotzaren kasuan, baldin eta haurdunaldian gertatzen bada edo seme-alabek hogeita hamar bete baino lehen. Adin horretatik aurrera aseguratuak egon behar dute hileta-zerbitzurako eskubidea izateko. Aseguratuak osorik moztutako gorputz-adarrak lurperatzea edo erraustea ere aseguratuak estaltzen du.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako kasuetan, ez da sartzean garraioa eta ez da kalte-ordainik eman beharko hileta-zerbitzuaren kostuaren eta aseguratuak zenbatekoaren arteko aldeagatik. Zerbitzu horiek ez erabiltzeak ez du kalte-ordainik eragingo.

Hileta-zerbitzua polizan adierazitakoa ez den herri batean egiten bada, aseguratuak herri horretako usadio eta ohituren arabera emango du zerbitzua, polizako zerbitzu-balioaren gehieneko mugarekin. Kasu honetan ez da aplikatuko, inolaz ere, polizako baldintza partikularretan jasota dagoen zerbitzuaren deskribapena.

Garraioa beharko balitz, aseguratuak heriotza gertatu den herriko nahiz ehorzketa edo errausketa egiten den herriko ohituren arabera emango du hileta-zerbitzua, polizan adierazitako zerbitzu-balioaren gehieneko mugarekin. Kasu honetan ez da aplikatuko, inolaz ere, polizan jasota dagoen zerbitzuaren deskribapena.

Aseguratuak ez du bere gain hartuko Espainiatik kanpo eragindako gasturik, baldin eta aseguratuak laurogeita hamar egun baino gehiagoko aurreikusitako aldirian atzerrian dagoenean gertatzen bada heriotza.

Heriotza-zerbitzua emateko garraioa behar denean, aurrerago deskribatutako den garraio-berme osagarria indarrean dagoenean soilik gauzatuko da. Bestela, aseguratuak prestazioa ematek libre geratuko da eta polizan jasotako zerbitzuaren balioaren zenbateko baliokidea emango die hildako aseguratuaren legezko jaraunseei.

Aseguratuak zerbitzua ematerik izan ez badu bere borondatearekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik, halaberrez edo zerbitzua berak eskaintzen dituenak ez diren beste bitarteko batzuen bidez egin delako, kontratatutako zerbitzuaren balioa ordainduko die hildako aseguratuaren jaraunseei, eta ez da izango emandako zerbitzuen kalitatearen erantzule.

Aseguratuak berean heriotza-aseguru bikoitza badago, aseguratuak behartuta dago, hartzaileak hala eskatzen badu, bikoitzeta gertatu zenetik hartzaileak balio gabetzea erabaki duen polizako prima ordainduak itzultzera.

16.2. PERTSONA ASEGURAEZINAK

Ezin dira aseguratu aseguru egiteko unean 70 urtetik gora dituzten, gaixotasun larria duten edo istripu baten ondorio larriak dituzten pertsonak, baldin eta aseguratuak onartzen ez badu eta polizan berariaz adierazten ez bada.

Bizilekua Espainiako lurraldetik kanpo duten pertsonak ezin dira aseguratu.

16.3. BERME HAU INDARREAN SARTZEA

Berme hori ez da aplikatuko aseguru indarrean sartzen denetik edo aseguratuak polizan alta ematen duen datatik, hau geroagokoa bada, hobe egun igarotzen diren arte, baldin eta aseguratuaren heriotza istripu baten ondoriozkoa ez bada edo poliza honek aseguratuak berarekin kontratatutako beste bat ordeztu ez badu, ez beharra jasaten duen aseguratu bertan sartuta dela. Kasu horietan bermeek lehen egunetik dute eragina.

Dena den, alderdi kontratatzaileek adostuta, lehen ezarritako gabealdia ezabatu ahal izango da, eta horrela jaso baldintza partikularretan.

16.4. ZENBATEKO ASEGURATUA

Berme horrek estaltzen duen prestazioa polizan ageri den helbidea eta herri horretako berezko zerbitzu-elementuak kontuan hartuta balioetsi da.

Helbide-aldaketa aseguratuak jakinarazi behar zaio zerbitzua zirkunstantzia berrietara egokitu dezan zerbitzu-elementuei eta aseguratuak zenbatekoari dagokienez.

16.5. ALDAKUNTZA ZERBITZUAREN KOSTUAN

Hileta-zerbitzuen balioagatik kontratatutako zenbatekoa egungo kostuen arabera finkatuta, egungo kostuak aldakuntzaren bat izango balu, aseguratuak aseguru-hartzaileari jakinaraziko dio. Halaber, zer aukera duen jakinaraziko dio: kontratua aldatzekoa, zerbitzuen kostu berria onartuz eta sortzen den gehigarri berria aseguratuak zenbateko berria txertatuz primaren zenbateko berriarekin, edo kontratuari egoera berean eustekoa. Kasu horretan, ez beharra gertatzen denean, aseguratuak zerbitzua ematek libre geratuko da eta aseguratuaren legezko jaraunslerei polizan ageri den zerbitzuen balioaren zenbateko balioakidea emango die kalte-ordain gisa, garraio- berme osagarria bertan behera utzita.

16.6. PRIMA-MODALITATEA

Aseguru honi aplika dakioken prima modalitate mistokoa da, eta honela definitzen da:

Prima handitu egingo da kontratuaren urteko berritze bakoitzean eta finkatutako ehunekoan, baita aseguratutako zerbitzuaren balioek berdin jarraitzen badute ere, aseguruak 70 urte betetzen dituen arte. Une horretan, prima orekatua bihurtuko da eta hortik aurrera ez da aldatuko kontratuak irauten duen bitartean, baldin eta zerbitzuaren balioak ez badira aldatzen. Zerbitzuaren balioetan izaten diren gehikuntzei aseguru bakoitzari dagokion prima-tarifa aplikatuko zaie, balio hori erregularizatzen den aseguruaren urteko bakoitzaren hasieran aseguruak duen adinaren arabera.

16.7. BERMEAREN MUGAPEN GEOGRAFIKOA

Hileta-zerbitzua Espainiako lurraldean emango da, polizako baldintza partikularretan jasotako zerbitzuaren balioaren eta deskribapenaren arabera.

Aseguratua hiltzen den tokitik, munduko edozein lekutan hiltzen dela ere, zerbitzua emango den Espainiako lurraldera garraiatzea estalita egongo da, baldin eta 17. artikuluan aurreikusitako Garraio Osoko bermea indarrean badago, bertan jasotako baldintzen arabera.

16.8. ESKLUSIOAK

Berme honetatik kanpo geratzen dira honako ezbehar hauek:

- Deklaratutako edo deklaratu gabeko gerraren ondorioz, iraultza, matxinada eta izurriteen ondorioz gertatutakoak eta Gobernu Nazionalak hondamendi-izaerakotzat deklaraturakoak.
- Bermea indarrean sartu aurretik edo bermea deuseztatu ondoren gertatutakoak.
- Bermea indarrean sartu aurretik diagnostikatutako gaixotasun larriaren edo indarrean sartu aurretik gertatutako istripu edo droga edo estupefazianteen ondoriozkoak, baldin eta zirkunstantzia horiek galdetegian aitortzen ez badira eta aseguratzaileak berariaz onartzen ez baditu.

17. artikulua

Garraio Osoa

17.1. BERMEAREN OBJEKTA

Aseguratzaileak poliza honetan ageri diren aseguratuen gorpuak garraiatzeko behar diren kudeaketak eta gastuak bermatzen ditu, hiltzen diren tokitik, berariaz aseguratuta

ez dauden hilabetetik beherakoak alde batera utzita, munduko edozein lekutan hiltzen direla ere, hildako aseguruaren eskubidedunek askatasunez aukeratutako Espainiako lurraldeko hilerrira edo erraustegira

Baldin eta agintari eskudunek behar diren baimenak ematen badituzte, ezinbesteko kausarik ez badago eta garraioa heriotza-aitorpena egitean aseguratzaileak adierazitako hileta-enpresaren bidez egiten bada soilik garraiatuko da aseguraturua.

17.2.BERME HONETARAKO ESKUBIDEA IZATEKO BALDINTZA

Berme honetarako eskubidea izateko, aseguratuak Espainiako lurraldean izan behar du bizilekua eta ez du egon behar Espainiatik kanpo laurogeita hamar egunetik gorako aurreikusitako aldian.

Gainera, zerbitzuaren balioa eta prima polizaren helbideari dagokion herrian indarrean dauden zerbitzuaren kostuaren arabera eguneratuta egon behar dute, 16.5. Aldakuntza Zerbitzuaren Kostuan izeneko atalean xedatutakoaren arabera.

17.3.BERME HAU INDARREAN SARTZEA

Berme hau ez da aplikatuko asegurua indarrean sartzen denetik edo aseguratuak polizan alta ematen duen datatik, hau geroagokoa bada, hogeitau egun igarotzen diren arte, baldin eta aseguruaren heriotza istripu baten ondoriozkoa ez bada edo poliza honek aseguratzaile berarekin kontratatutako beste bat ordeztu ez badu, ezbeharra jasaten duen aseguraturua bertan sartuta dela. Kasu horietan bermeak lehen egunetik du eragina.

Dena den, alderdi kontratatzaileek adostuta, lehen ezarritako gabealdia ezabatu ahal izango da, eta horrela jaso baldintza partikularretan.

17.4.BERME HONENTZAKO OHAR GARRANTZITSUAK

9. Ezbeharra artikuluan adierazitako heriotza-zerbitzurako adierazitako izapideak ez betetzea berme honen onurei uko egitea bezala ulertuko da.

17.5.ESKLUSIOAK

16.8 atalean jasotako eskusioez gain, berme honetatik kanpo geratuko dira honako ezbehar hauek:

- Aseguratuak ohiko bizilekua atzerrian duenean gertatutakoak.
- Aseguraturua laurogeita hamar egunetik gorako aldian atzerrian bidaiatzen edo atzerriara joanda dagoenean gertatutakoak.

18. artikulua

Eguneroko Bizitzarako Laguntza Heriotzagatik

18.1. BERMEAREN OBJEKTUA

Berme honen zerbitzuak polizaren helbidean emango dira aseguratu baten heriotza gertatzen denean, polizako baldintza partikularretan zehaztutako mugarekin eta efektu-datarekin.

Aseguratzaileak honako zerbitzu hauek emango ditu:

1. Etxez etxeko laguntzailea.
2. 16 urtetik beherako seme-alabak edo desgaitasuna dutenak zaintzeko familiarteko baten joan-etorria.
3. 16 urtetik beherako seme-alabak edo desgaitasuna dutenak etxean zaintzeko laguntzailea.
4. 16 urtetik beherako seme-alabak edo desgaitasuna dutenak eramatea.
5. 16 urtetik beherako seme-alaba edo desgaitasuna dutenentzako laguntzailea eramatea.
6. 16 urtetik beherako seme-alabei edo desgaitasuna dutenei eskolara eta eskolatik etxera laguntzea.
7. Lehen graduko aurreko ahaideak zaintzeko etxez etxeko laguntzailea.
8. Lehen graduko aurreko ahaideak zaintzeko familiarteko baten joan-etorria.
9. Lehen graduko aurreko ahaideen garraioak.
10. Konpainiako etxeko animaliak (txakurrak eta katuak) zaintzea.
11. Mezu urgenteak transmititzea.
12. Laguntza pertsonala

18.2. ESTALDURAREN BALDINTZA ESPEZIFIKOAK

1. Etxez etxeko laguntzailea

Aseguratuak antolatuko du eta bere gain hartuko du etxeko etxeko laguntzaile bat aurkitu eta bidaltzeko ardura etxeko oinarritzko lanetan laguntzeko (garbiketa, ikuzketa eta lisatzea, otorduak prestatzea, etab.) 30 orduko mugarekin, eguneko 2 ordu jarraitarekin gutxienez, lehen egunetik kontaktzen hasita.

Ordu horiek hilabeteko epean banatuko dira gehienez ere.

Prestazioaren ordu-kopurua eskatzailearen autonomia-mailaren balorazio objektiboan oinarrituta esleitu da, familia-unitateko kide-kopurua, etxebizitzaren azalera eta antzeko alderdiak balioetsiz.

Etxeko etxeko laguntzailearen bermea ezin da metatu familia-unitate berean hildako bat baino gehiago dagoenean.

Prestazio hau Laguntza Pertsonaleko 12. bermearen prestazio osagarri gisa ulertu behar da, eta haietako bakoitzaren prestazio-orduak ez dira metagarriak izango.

2. 16 urtetik beherako seme-alabak edo desgaitasuna dutenak zaintzeko familiarterko baten joan-etorria.

Aseguratuak antolatuko du eta bere gain hartuko du aseguratuen familiarterko bat edo hildako aseguratuen kausadunek izendatutako pertsona aseguratuen etxeraino iristeko bidaia, hegazkinez hegaldi erregularrean (turista-klasean), trenez (1. klasean) edo taxiz, bere seme-alabak zaindu ditzen.

Berme hori baztertzat da 3., 4. eta 8. bermeei dagokienez.

3. 16 urtetik beherako seme-alabak edo desgaitasuna dutenak etxean zaintzeko laguntzailea.

Aseguratuak antolatuko du eta bere gain hartuko du etxeko etxeko laguntzaile bat aseguratuen 16 urtetik beherako seme-alabak edo desgaitasuna dutenak zaintzera bidaltzeko ardura, 20 orduko mugarekin eta eguneko 2 ordu jarraitarekin gutxienez, lehen egunetik kontaktzen hasita, gehienez hilabeteko epean. Ordu-kopurua eskatzailearen premiaren balorazio objektiboan oinarrituta finkatuko da, familia-unitateko kide-kopurua, etxebizitzaren azalera eta antzeko alderdiak balioetsiz.

Berme hori baztertzat da 2. eta 4. bermeei dagokienez.

4. 16 urtetik beherako seme-alabak edo desgaitasuna dutenak eramatea.

Aseguratuak antolatuko du eta bere gain hartuko du hildako aseguratuen 16 urtetik beherako seme-alabak edo desgaitasuna dutenak hildako aseguratuen kausadunek

izendatutako familiakoaren Espainiako etxera eramateko garraioa, hegazkinez hegaldi erregularrean (turista-klasean), trenaz (1. klasean) edo taxiz.

Berme hori baztertzailerak da 2. eta 3. bermeei dagokienez.

5. 16 urtetik beherako seme-alaben edo desgaitasuna dutenen laguntzailerak eramatea.

Asegurtzailerak antolatuko du eta bere gain hartuko du seme-alaba adingabeei familiako baten etxeraino laguntzeko Espainian izendatutako pertsonarentzako joan-etorriko billetea kudeatzea.

Laguntzailerak asegurtzailerak izendatuko du hildako asegurtuaren kausadunek ezin dutenean pertsona heldu bat izendatu.

6. 16 urtetik beherako seme-alabei edo desgaitasuna dutenei eskolara eta eskolatik etxera laguntzea.

Asegurtzailerak antolatuko du eta bere gain hartuko du eskolara eta eskolatik etxera eramateko laguntzailerak bat aurkitzea eta bidaltzea, egunean gehienez 4 aldiz eta gehienez 10 egunez, familiarterkorik ez badago hori egiteko moduan, eta gehienez hilabeteko epean.

7. Lehen graduko aurreko ahaideak zaintzeko etxez etxeko laguntzailerak.

Asegurtzailerak antolatuko du eta bere gain hartuko du hildako asegurtuaren etxe berean bizi diren eta indarreko legeriaren arabera mendekotasun-egoeran dauden lehen graduko aurreko ahaideak zaintzeko eta artatzeko etxez etxeko laguntzailerak bat kudeatu eta bidaltzeaz; 20 orduko mugarekin eta eguneko bi ordu jarraituarekin gutxienez, lehen egunetik kontaktzen hasita.

Prestazioaren ordu-kopurua eskatzailearen premiaren balorazio objektiboan oinarrituta esleitu da, familia-unitateko kide-kopurua, etxebizitzaren azalera eta antzeko alderdiak balioetsiz.

Berme hori baztertzailerak da 8. eta 9. bermeei dagokienez.

8. Lehen graduko aurreko ahaideak zaintzeko familiarterko baten joan-etorria.

Asegurtzailerak antolatuko du eta bere gain hartuko du hildako asegurtuaren familiako batentzako edo asegurtuaren kausadunek izendatutako pertsonarentzako asegurtuaren etxe berean bizi diren eta indarreko legeriaren arabera mendekotasun-egoeran dauden lehen graduko aurreko ahaideak zaintzera asegurtuaren etxeraino joan-etorria egiteko billetea kudeatzea, hegazkinez hegaldi erregularrean (turista-klasean), trenaz (1. klasean) edo taxiz.

Berme hori baztertzailerak da 2., 7. eta 9. bermeei dagokienez.

9. Lehen graduko aurreko ahaideen garraioak.

Asegurtzailerak antolatuko du eta bere gain hartuko du asegurtuaren etxe berean bizi diren eta indarreko legeriaren arabera mendekotasun-egoeran dauden lehen graduko

aurreko ahaideentzako aseguruaren kausadunek izendatutako familiakoaren Espainiako etxeraino joan-etorriko billetea kudeatzea.

Berme hori baztertua da 7. eta 8. bermeei dagokienez.

10. Konpainiako etxeko animaliak (txakurrak eta katuak) zaintzea.

Aseguratuak antolatuko du eta bere gain hartuko du hildako aseguruaren etxeko animalien (txakurrak eta katuak) garraioa eta ostatu ematea lehen egunetik eta hilabeteko mugarekin.

11. Mezu urgenteak transmititzea.

Aseguratuak arduratuko da hildako aseguruaren kausadunek eskatutako mezu urgenteak transmititzeaz.

12. Laguntza pertsonala.

Aseguratuak antolatuko du eta bere gain hartuko du etxeko lanak egingo dituenaz gain laguntza pertsonalerako laguntzaile bat aurkitu eta bidaltzeko ardurak, hildako aseguruaren familiako kideren batek zaintza pertsonala behar duenean, 30 orduko mugarekin, eguneko 2 ordu jarraitarekin gutxienez, lehen egunetik kontaktzen hasita.

Honako hauek dira berme honetan sartzen diren prestazioak:

- Higienean laguntzea, bere burua txukuntzen, dutxatzen edo bainatzen.
- Arropa eta oinetakoak janzten eta elikatzen laguntzea.
- Etxe barruan lekuz aldatzen eta mugitzen laguntzea.
- Jaten laguntzea.
- Osasun-zentroak agindutako botikak hartzen laguntzea.
- Oinarrizko laguntza ematea inkontinentzia dutenei
- Higiene- eta txukuntasun-ohiturak sustatzea.

Zerbitzu hau ez da inoiz ulertuko pertsonal sanitarioak etxean emateko zerbitzu-prestazio gisa, hala nola erizainek, OLTEk, medikuntza orokorrekoek edo mediku-espezialitateetakoek.

Ordu horiek hilabeteko epean banatuko dira gehienez ere.

Prestazioaren ordu-kopurua eskatzailearen premia-mailaren balorazio objektiboan oinarrituta esleitu da, familia-unitateko kide-kopurua, etxebizitzaren azalera eta antzeko alderdiak balioetsiz.

Etxe etxeko laguntzailearen bermea ezin da metatu familia-unitate berean hildako bat baino gehiago dagoenean.

Prestazio hau 1. bermearen prestazio osagarri gisa ulertu behar da, eta haietako bakoitzaren prestazio-orduak ez dira metagarriak izango.

18.3. ALDAKETA

Aseguratzaileak eskubidea du zerbitzuetan sartzen diren prestazio guztiak edo batzuk noiznahi aldatzeko edo indargabetzeko, eta jakinarazpena igorri beharko dio aseguru-hartzaileari. Uneren batean berme hau garatzea galarazten duten ezinbesteko zirkunstantziak edo legezko inposatzeak aldi berean gertatzen badira, berme hau indargabetuta geratuko da aldez aurretik adierazi gabe eta aseguratzailearentzako erantzukizunik gabe.

18.4. BERMEAREN MUGAPEN GEOGRAFIKOA

Espainiako lurraldean helbidea duten Aseguratuaren kasuan, Eguneroko Bizitzarako Laguntzaren bermeak Espainiako lurraldean aplikatuko dira, uharteak, Ceuta eta Melilla barne, heriotza Espainiatik kanpo gertatu bada ere.

18.5. ESKLUSIOAK

Aseguratzaileak ez du bere gain hartuko berme horretatik eratorritako ordainketarik edo kalte-ordainik.

19. artikulua

Laguntza Psikologikoa Heriotzagatik

19.1. BERMEAREN OBJEKTUA

Berme honen bidez, aseguratzaileak hildako aseguruaren kausadunen eskura jartzen du, polizaren baldintza orokorretan eta partikularretan finkatutako mugen barruan, aseguraturako senitartekoaren heriotzak eragindako doluagatik behar duten orientazio eta laguntza psikologikorako telefono-zerbitzua.

Honako gai hauekin zerikusia duten informazio- eta orientazio-premiak estaliko dira:

- Hasierako laguntza psikologikoa krisi pertsonaleko uneetan edo herstura-uneetan.
- Senitartekoaren heriotzak eragindako doluagatik laguntza psikologikoa jasotzeko aukerari buruzko orientazioa eta xede horretarako eskura dauden baliabideei buruzko informazioa.

19.2. ALDAKETAK

Aseguratzaileak eskubidea du deskribatutako bermea noiznahi aldatzeko edo indargabetzeko, aseguru-hartzaileari jakinarazpena bidalita. Uneren batean berme hau

garatzea galarazten duten ezinbesteko zirkunstantziak edo legezko inposatzeak aldi berean gertatzen badira, indargabetuta geratuko da aldez aurretik adierazi gabe eta aseguratzailearentzako erantzukizunik gabe.

19.3. ERANTZUKIZUN

Aseguratzaileak zuhurtzia handienarekin egingo du laguntza-zerbitzua, betiere aseguruak emandako informazioan oinarrituta, eta ezingo zaio inolako erantzukizunik eskatu bermean jasotako orientazio eta laguntza telefonikoko prestazio hutsa ez den edozein gertakariren ondorioz.

Aseguratzailea ez da erabiltzaileen okerreko interpretazioen erantzule egingo, ez eta beren ekimenez edo eskaintako orientazioaren ondoren erabili duen profesionalaren ekimenez egindako ekintzen erantzule ere.

Aseguratzailea ez da egingo berak hitzartu gabeko zerbitzuak erabiltzearen ondorioz sortutako gastu edo erantzukizunen erantzule.

19.4. ZERBITZU-PRESTAZIOA

Aseguratzaileak, onuradunaren arretarako 900 264 524 telefonoaren bidez emango du zerbitzu hau, eguneko 24 orduetan, urteko 365 egunetan.

19.5. ESKLUSIOA

Aseguratzaileak ez du bere gain hartuko berme horretatik eratorritako ordainketarik edo kalte-ordainik.

Halaber, estaldura honetatik kanpo geratzen da aseguratzaileak bere gain hartutako informazio- eta orientazio-betebeharretatik haratago estaldura honen xede diren gaietan esku hartu duten profesionalen jarduketan ondoriozko ordainsariak ordaintzea.

Inolaz ere ez da emango diagnostikorik eta tratamendurik telefonoz.

20. artikulua

Zerbitzu Juridikoen Kudeaketa Heriotzagatik

20.1. BERMEAREN OBJEKTUA

Zerbitzu juridikoen berme hau aurrerago deskribatzen den laguntza eska dezaketen hildako aseguruaren kausadunei aplikatuko zaie, polizako baldintza partikularretan zehaztutako mugarekin eta efektu-datarekin.

Aseguratuzaileak honako zerbitzu hauek emango ditu:

- TELEFONOZKO LEGE-AHOLKULARITZA.
- ERAKUNDE PUBLIKOEN PRESTAZIOAK JARAUNTSI ETA IZAPIDETZEARI BURUZKO KUDEAKETAK.

20.2. ALDAKETAK

Aseguratuzaileak eskubidea du zerbitzuetan sartzen diren prestazio guztiak edo batzuk noiznahi aldatzeko edo indargabetzeko, eta jakinarazpena igorri beharko dio aseguru-hartzaileari. Uneren batean berme hau garatzea galarazten duten ezinbesteko zirkunstantziak edo legezko inposatzeak aldi berean gertatzen badira, berme hau indargabetuta geratuko da aldez aurretik adierazi gabe eta aseguratuzailearentzako erantzukizunik gabe.

20.3. ERANTZUKIZUNA

Aseguratuzaileak zuhurtzia handienarekin emango ditu estalitako zerbitzuak, betiere aseguratuak emandako informazioan oinarrituta, eta ezingo zaio inolako erantzukizunik eskatu berme honetan deskribatutako estalduraren prestazio hutsa ez den edozein gertakariren ondorioz.

Aseguratuzailea ez da egingo erabiltzaileen okerreko interpretazioen eta itundutako bulego edo bufeteetan jasotako aholku edo orientazio juridikoen erantzule ere.

20.4. BERMEAREN MUGAPEN GEOGRAFIKOA

Aseguratuak eskubidea dute zerbitzuak hemen xedatutako baldintzetan erabiltzeko, aseguratuzaileak zerbitzu-prestazioa bermatzeko behar den egitura duen eremu geografikoan.

Zerbitzu horiek erabili ahal izango dituzte bizi diren herria kontuan izan gabe eta aseguratuzaileak akordioak dituen lekuetan.

Bizilekua aldatuz gero edo berme honek estalitako zerbitzuak emateko ezintasunaren aurrean, aseguru-hartzaileak estaldura deuseztatzea erabaki dezake aseguratuzaileak zerbitzua emateko ezintasuna egiaztatzen duen unetik aurrera.

20.5. ZERBITZU JURIDIKOEN KUDEAKETA-BERMEAREN ESKLUSIOAK

Inoiz ez dira emango berme honetan jasota ez dauden zerbitzuak, eta berariak kanporatzen dira hauek:

- Bermea indarrean sartu aurretik edo bermea deuseztatu ondoren jazotako gertaeretatik eratorritako gatazkak.
- Polizan berariak aseguraturutakoa ez den edozein kontratu-betebehar ez betetzearen ondoriozko gatazkak

- Halaber, poliza honek ez du inoiz estaliko sortu dituen gastuen eta epai bidez interesdunari ezartzen zaizkion aurkakoaren kostuen ordainketa, interesdunak auzi bat martxan jarriko balu edo aseguratzailearen zuzendaritza juridikoaren iritziz arrakasta izateko aukerarik ez duen auzi bati aurka egingo balio.
- Aseguratzaileak ez du inoiz ordainketa edo kalte-ordainik bere gain hartuko, ez eta haien ondoriozko zerbitzu juridikoak edo ordainsariak ematea edo ordaintzea ere, eta ez du laguntza judizial edo juridikorik emango.
- Aseguratzaileak ez du bere gain hartuko hitzartutako profesional baten jarduera axolagabe edo desegoki baten ondoriozko erreklamaziorik bere jardura profesionalari dagokionez edo erreklamazio eta orientazio guztiz

20.6. EZBEHARRAK

Berme honen ondorioetarako ezbehartzat hartzen da aseguratuaren interesei kalte egiten dien edo bere egoera juridikoa aldatzen duen gertaera oro. Ezbehar baten ondorioz Laguntza Juridikoko Zentroaren zerbitzuak behar dituen aseguratuak telefonoz jarri beharko da harekin harremanetan: 900 264 524, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 20:00etara.

Bidezkoa den kasuetan, aseguratuak postaz, faxez edo posta elektronikoz bidal dezake Laguntza Juridikoko Zentroak dagokion kontsulta aztertzeo eskatutako dokumentazioa.

Eskainitako gomendio juridikoa abokatu batek esku hartzea eskatzen duten ekintza adiskidetsuak edo judizialak egitea denean, auziaren zuzendaritza juridikoaz arduratu daitekeen eta aseguratuaren etxetik hurbilen dagoen abokatu kolaboratzailearen berri emango du aseguratzaleak. Kasu horietan, aseguratuaren aseguratuaren kolektiborako berriaz hitzartutako zerbitzu-sarien minuta aplikatuko da.

Hemen berriaz jaso ez denerako, 9. artikuluan xedatutakoa bete beharko da. Ezbeharrak.

20.7. TELEFONOZKO LEGE-AHOLKULARITZA

Aseguratuek eskura izango dituzte Laguntza Juridikoko Zentroaren zerbitzuak, hura osatzen duten abokatuekin telefonoz harremanetan jartzeko.

Kontsulta zuzeneko zerbitzu horrek aukera emango dio aseguratuari orientazio juridikoa jasotzeko polizan aseguratuakoen senitarteko baten heriotzari buruzko kontu guztietan:

Testamentua, heriotza, oinordetza, jarauntsiaren banaketa, pentsioak, Gizarte Segurantzaren prestazioak, bizitza-aseguruak, istripuaren ondoriozko aldi baterako ezintasuna, ezintasun iraunkorra eta ardurapeko seme-alaba bakoitzeko familiako prestazioa.

20.8. DOKUMENTUEN IDAZKETA

20.7. Telefonozko Lege Aholkularitza atalean aurreikusitako estaldura-xede diren gaietarako, Laguntza Juridikoko Zentroan, bertako abokatuek eskainitako aholkuen ondoriozko eduki juridikoko idatziak, gutunak, kontratuak eta abar egingo dira. Halaber, aseguratuen eskatuta, behar den notario-tresna prestatzeko oharra edo minuta idatziko da.

Idatzi horiek posta elektronikoz helaraziko zaizkio aseguratuari eta, bestela, posta urgente bidez edo fax bidez, aseguratuen dagokien bidea eman diezaien.

Esklusioak

20.5 Zerbitzu Juridikoen Kudeaketa Bermearen Esklusioak atalean adierazitako eskusioez gain, berme honetarako eskusio hauek ere badaude:

- Idatziak prestatzearekin eta aseguratuari bidaltzearekin zerikusirik ez duten kostuak.
- Notarioaren, prokuradorearen, perituen edo judizioz kanpoko prozeduraren barruan esku hartu beharko luketen ordainsariak.
- Laguntza Juridikoko Zentrokoak ez diren profesionalek egindako idatziak.

20.9. ERAKUNDE PUBLIKOEN PRESTAZIOAK JARAUNTSI ETA IZAPIDETZEARI BURUZKO KUDEAKETAK

Aseguratu baten heriotzaren kasuan, aseguratzailerak honako dokumentu hauek lortzeko izapideak eta kudeaketak egingo ditu dagokion erakundearen aurrean eta honako gertakizun hauetarako:

- a. Heriotza-ziurtagiria.
- b. Jaiotza-ziurtagiria.
- c. Ezkontza-ziurtagiria.
- d. Azken nahiaren ziurtagiria.
- e. Alarguntza-pentsioak eskatzea eta izapidetzea GSINren aurrean. Zurztasun-pentsioak eskatzea eta izapidetzea GSINren aurrean.

e) eta f) ataletan adierazitakoa kudeatzea eta izapidetzea administrazio-bidez soilik egingo da, bide judiziala alde batera utzita. Horretarako, aseguratuari interesatuko balitzaio, aseguratzaileraren abokatu kolaboratzaileen bulegoetako batera joko da. Halaber, oinordetza-eragiketen ondoriozko kontuak aseguratzaileraren abokatu kolaboratzaileen bulegoetan artatuko dira.

Esklusioak

20.5 Zerbitzu Juridikoen Kudeaketa Bermearen Esklusioak atalean adierazitako eskusioez gain, berme honetarako eskusio hauek ere badaude:

- Abokatuen ordainsariak.
- Dokumentuak kudeatu eta lortzeko gastuak.

Ordainsari eta gastu horiek aseguruaren kontura izango dira, eta kasu horietan aseguruzailearen aseguruaren kolektiborako bereziki itundutako zerbitzu-sarien minuta aplikatuko da.

21. artikulua

Azterna digitala ezabatzea heriotzagatik

21.1. BERMEAREN HELBURUA

Berme honen helburua da hildako aseguruaren azterna digitala ezabatzea, kontu pertsonaletan, sare sozialetan, web-orrialdetan eta posta elektronikoko edo biltegitratze digitalako zerbitzuetan, legezko oinordekoek hala eskatzen dutenean eta ahal denean.

Aseguruaren heriotzagatik aseguruzaileak ematen duen azterna digitala ezabatzeko zerbitzuak honako ekintza hauek hartzen ditu barne:

1. Hildako aseguruak erabiltzen zituen sare sozialetan baja emateko eskaera edo oroigarritzko kontura aldatzeko eskaera.
2. Posta elektronikokoan baja emateko tramitazioa.
3. Hildako aseguruaren blog edo webguneetan, foroetako profiletan, txatetan edo bikotea bilatzeko orrialdetan baja emateko edo eskualdatzeko tramitazioa.
4. Interneteko zerbitzarietan biltegitratutako fitxategiak ezabatzeko edo eskualdatzeko tramitazioa (Interneteko hodeia).

Aseguruzaileak betebeharrak gauzatzeko aseguruaren heriotzaren berri emango die fitxategien arduradunei, datuak ezaba ditzaten. Edonola ere, aseguruzailea ez da egindako gestioen emaitzaren erantzule izango.

Era berean, zerbitzua emateko baldintza izango da datuak ezabatu behar dituen arduraduna identifikatu ahal izatea. Fitxategien arduradunek datuak ezabatzen ez badituzte, aseguruzaileak ez du inolako ekintza judizialik abiaraziko, eta ez du bere gain hartuko hildako aseguruaren legezko oinordekoek egin litzaketen akzio judizialen

gasturik, ezta eskubideak babesteko eskaeraren edo datuak babesteko agintaritzaren aurreko salaketaren gasturik ere.

Aseguratuzaileak ez du egindako gestioen arrakasta bermatzen, batez ere honako kasu hauetan:

1. Informazioa datuak babesteko berariazko legeriarik ez duten herrialdeetan dagoenean.
2. Interneteko bitartekoaren titularrarekin hitzartutako baldintzek lehentasuna dutenean.
3. Beste eskubide batzuek lehentasuna dutenean datuen zuzentasunaren aurrean, hala nola informazio-eskubideak edo adierazpen-askatasunak.

Aseguratuzaileak bere gain hartuko ditu hildako aseguratuaren datuak ezabatzeke eskaeraren gastuak, baita, behar izanez gero, eskatutako informazioa bidaltzen den herrialdeko hizkuntzara itzultzeko gastuak ere. Hildako aseguratuaren datuak gehienez lau kontu edo web-orrialdetan ezabatzeke eskatu ahal izango da. Ez da bermatzen Txinan kokatutako kontu edo web-orrialdak ezabatzeke zerbitzua. Ez da bermatzen ezabatzeke zerbitzua legezko oinordekoen arteko desadostasunak badaude.

21.2. SALBUESPENAK

Estalduratik kanpo geratuko dira:

1. Aseguratuzaileak izendatu gabeko profesionalek esku hartzeko gastuak.
2. Bermearen efektu-dataren aurretik edo muga-egunaren ondoren eskatutako zerbitzuak.

21.3. MUGA GEOGRAFIKOA

Bermea Interneteko informazioaren gainean aplikatuko da, betiere datuak babesteko berariazko legeria duten herrialdeetan badago. Ez da aplikatuko Txinan kokatutako webguneetan.

21.4. ERANTZUKIZUNA

Aseguratuzaileak ardua osoz emango ditu estalitako zerbitzuak, aseguratuak edo bere legezko oinordekoek emandako informazioak oinarri hartuta.

Aseguratuzaileak ez du bere gain hartuko erabiltzaileek jasotako aholku edo orientabideen ondoriozko interpretazio okerren erantzukizuna.

21.5. EZBEHARRAK

Hildako aseguratuaren aztarna digitala ezabatzeke, oinordekoek honako informazio edo dokumentazio hau aurkeztu beharko dute eskaerarekin batera:

1. Hildako aseguruaren heriotza-ziurtagiria (originala eta laburpena).
2. Eskatzailea oinordeko digitala edo legezko oinordekoa dela egiaztatzen duen dokumentazioa.
3. Eskatzailearen nortasun-agiri nazionalaren edo atzerriarren identifikazio-zenbakiaren kopia.
4. Baleude, legezko gainerako oinordekoen baimena edo testamentugileak oinordeko digital izendatutako pertsonaren baimena.
5. Informazioa izanez gero, hildakoak erabiltzen zituen Interneteko bitartekoen identifikazioa, horietan aztarna digitala ezabatzeko. Informazio hori ez badago, aseguratzaileak Interneteko bitartekoak arakatu ahal izango ditu, oinordekoek ematen dioten helbide elektronikoaren haritik. Edonola ere, arrazoi teknikoak direla eta, ezinezkoa da bitarteko guztiak aurkituko direla bermatzea.
6. Hildako aseguruaren helbide elektronikoa, haren baja eskatuz gero.
7. Aukeran, eta informazioa izanez gero, hildako aseguruaren erabiltzaile-datuak eta sarbide-gakoak.

Gainerako onduguztietarako, berme honi atxikita dagoen baldintza orokorretako 9. artikulua («Ezbeharrak») xedatutakoa beteko da.

22. artikulua

Espainian bizi diren atzeritarren lekualdaketa

22.1. BERMEAREN HELBURUA

Aseguratua hilez gero, aseguratzaileak honako zerbitzu hauek emango dituela bermatzen du, eranskin honetan jasotako baldintzetan:

- Hildakoaren lekualdaketa.
- Hildakoaren gorpuzkiak aberriratzeko laguntzailea.

22.2. ESKUBIDEA IZATEKO BALDINTZA

Ezin dira aseguruak berme hau alta emateko egunean 70 urte baino gehiago dituzten pertsonak. Berme honek estaldura emango die Espainiako egoiliarren legezko izaera duten pertsonari, baldin eta espainiarra ez den nazionalitatea edo nazionalitate bikoitza (espainiarra eta jatorrizko herrialdekoa) badute, unean-unean indarrean dagoen legeriaren arabera.

Berme hau ez da aplikagarri izango aseguruak Espainiako egoiliarren legezko izaera galtzen badu.

Horrez gain, hileta-zerbitzuaren balioak eta primak eguneraturik egon beharko dute, aseguratzaileak proposatutako zerbitzuen kostuarekin bat, berme honi atxikita dagoen erantsirik duten baldintza orokorretako 16. artikuluko («Hileta-zerbitzuak») 16.5 atalean («Zerbitzuaren kostua aldatzea») ezarritakoaren arabera. Era berean, baldintza orokorretako 17. artikuluan jasotako lekualdaketa osoaren bermeak indarrean egon beharko du.

22.3. ESTALITAKO ZERBITZUAK

HILDAKOAREN LEKUALDAKETA

Hildako aseguruaren gorpuzkiak lekualdatzeko beharrezko gestioak eta gastuak bermatzen ditu aseguratzaileak, salbu eta polizan berriaz aseguratutik ez dauden hilabetetik beherako adin txikikoanak. Aseguruaren jatorrizko herrialdean, haren gorpuzkiak erraustu edo ehorzteko eskubidedunek aukeratutako lekutik hurbilen dagoen aireporturaino egingo da lekualdaketa.

Lekualdaketa egiteko nahitaezko baldintza izango da agintari eskudunek dagozkien baimenak ematea, ezinbesteko kasurik ez gertatzea eta lekualdaketa aseguratzaileak aukeratutako hileta-enpresaren bidez egitea.

HILDAKOAREN GORPUZKIAK ABERRIRATZEKO LAGUNTZAILEA

Hildako aseguruaren eskubidedunek eskubidea izango dute hegazkinez edo garraiobide publiko egokian bidaiatzeko txartel bat (joan-etorrikoa turista-mailan) eskuratzeko, beraiek aukeratutako pertsonak joan-etorria egin dezan Espainiaren eta helmugako herrialdearen artean, hildakoaren gorpuzkiekin.

22.4. OHAR GARRANTZITSUAK

Berme hau erabili ezean, aseguratzaileak ez du inolako ordainketarik edo kalte-ordainik ordaindu beharko kontzeptu horrengatik.

Onuradunei ez zaie inoiz ordainduko aseguratzaileak eman gabeko zerbitzu bat, aldean artean berriaz hitzartu ez badute.

22. 5. INDARREAN SARTZEA

Artikulu honetan azaldutako bermeak eragina izango du aseguruak polizan alta ematen duen egunetik sei hilabetera, edo, geroagokoa bada, aseguruak bermean alta ematen duen egunetik sei hilabetera, salbu eta heriotzaren eragilea istripua izan bada edo poliza horrek aseguratzaile berarekin aurretik kontratatutako beste poliza bat ordezkatu badu, eta aurreko poliza horretan hildako aseguruak berme hori bazuen. Kasu horietan, lehen egunetik izango du eragina bermeak.

Halere, aldean arteko hitzarmenaren bidez, aipatutako gabealdia ezabatu egin ahal izango da. Hori eginez gero, baldintza partikularretan jaso beharko da.

22.6. SALBUESPENAK

Berme honetatik kanpo geratuko dira ezbehar hauek:

- Bermea indarrean jarri aurretik edo hutsaldu ondoren gertatutakoak.
- Gerrek (deklaratuak izan ala ez), iraultzek, matxinadek edo izurriteek eragindakoak, eta gobernu nazionalak hondamendizat jotako gertaeren ondoriozkoak.
- Diagnostikatutako gaixotasun larri batek, istripu batek edo droga nahiz estupefazianteen kontsumoak eragindakoak, baldin eta bermea indarrean jarri aurretik sortu edo gertatu badira, salbu eta halako egoerak galde-sortan aitortu badira eta aseguratzaileak berariaz onartu baditu.
- Aseguratuak ohiko bizilekua atzerrian duenean gertatzen direnak.
- Aseguratuak Espainiako egoiliarren legezko izaera galdu ondoren gertatzen direnak.

22.7. EZBEHARRAK

Berme honi atxikita dagoen baldintza orokorretako 9. artikuluan («Ezbeharrak») jasotakoa beteko da.

ASEGURU-HARTZAILEARI EMATEN ZAIZKION BALDINTZA OROKOR ETA PARTIKULARREK OSATUKO DUTE KONTRATUA, ETA EZ DUTE BALIORIK IZANGO BAKARKA.

IRAKURRI DUT ETA ADOS NAGO

ASEGURU-HARTZAILEA

ASEGURATZAILEA

P.P



EXPERTIA
seguros



OINARRIZKO EHORZKETA
ASEGURUA



900 264 524

24 ORDUETAN ZURE ZERBITZURA

XMIK0641

EXPERTIA
seguros